



OÑATIKO UDALA

idazkaritza@onati.eus
Telefona: 943 78 04 11
Fax: 943 78 30 69
20560 OÑATI

OSOKO BILKURA 2017-11-30

Organoa: Udal Plenoa

Izaera: Ohikoa

Deialdia: Lehena

Eguna: 17-11-30

Ordua: Hasiera: 18:00etan. Bukaera 21:30ean

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak:

Alkatea: Mikel Biain Berraondo (EH Bildu) Zinegotziak:

- .- Irati Etxeberria Gabiria (EH Bildu)
- .- Borja Moiuia Yarza (EH Bildu)
- .- Nerea Zubia Blazquez (Bildu)
- .- Kepa Zelaia Bolinaga (EH Bildu)
- .- Ana Martin Peralta (EH Bildu)
- .- Leire Zumalde Gantxegi (EH Bildu)
- .- Oier Irizar Markuleta (EH Bildu) ez da etorri
- .- Susana Altuna Ugarte (EH Bildu)
- .- Rafael Cortabarria Chinchurreta (EH Bildu)
- .- M^a Lourdes Idoiaga Urkia (EAJ-PNV)
- .- Miren Amaia Erostarbe Letamendi (EAJ-PNV)
- .- Jon Kepa Guerricagoitia Arrien (EAJ-PNV)
- .- Ricardo Felipe Fernandez Alcala (EAJ-PNV) (Aurrekontuaren gaia bukatu aurretik alde egin du)
- .- Maria Jose Etxegoien Arzuaga (EAJ-PNV)
- .- Fco Javier Balzategi Maiztegi (EAJ-PNV)
- .- Miren Nekane Maiztegui Ugarte (EAJ-PNV)

Idazkaria: Jesús M^a Madinabeitia Jauregui jauna Kontu-hartzailea: Paskual Elustondo Darpon jauna

BILKURA

2.- Oñatiko Udalaren 2018ko Aurrekontu Orokorra

Aurrekontuarekin guztiz lotuta dagoelako ondorengo Kreditu aldaketaren espedientea gai zerrendan sartu eta hala balegokio onartzea proposatu du; izan ere, kreditu-aldaketarako espedientearen onarpena guztiz lotuta dago aurrekontuaren garapenari.

2.1.- Ekipamendu sozialetarako konpromiso-kreditua

Kontu-hartzaileak dio, 2018ko Aurrekontua eztabaidatu eta irizpena eman aurretik, 2016-12-22ko OBk hartutako akordioari buruzko irizpena eman behar dela, ekipamendu sozialetarako 926.752,95 €-ko konpromiso-kredituari buruzkoa. Era berean, adierazi Gobernu Taldeak ez duela barne hartu konpromiso hau 2018ko Aurrekontuan, Gipuzkoako gizarte-zerbitzuen birmoldaketan atzerapenak daudelako, eta ez duelako aurreikusten inbertsio hori gauza daitekeenik 2018an. Gobernu Taldearen proposamena litzateke aipatu konpromiso-kreditua 2019ra atzeratzea.

Alkatearen eskariz, presazko gai bat gai-zerrendan sartzeko behar diren urratsak egin ondoren, hau da, gaia arrazoitzea eta bertaratuen gehiengoaren botoa lortzea, arestian aipatutako gaia gai-zerrendan jartzea erabaki da.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasun Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udal Plenoak aho batez erabaki hauek hartu ditu:

- 1.- 2016-12-22ko Osoko Bilkurak hartutako akordioa, ekipamendu sozialetarako 926.752,95 €-ko konpromiso-kredituari buruzkoa, bertan behera uztea.
- 2.- 2019 ekitaldirako konpromiso-kreditu bat onartzea ekipamendu sozialetarako 926.752,95 €-koa.

2.2.- 2018ko Aurrekontu Orokorra:

Udal Kontu-hartzaileak hitza hartu du, eta 2018rako Oñatiko Udalaren Aurrekontu orokorraren aurkezpena egin du:

0.- Sarrera

2018ko Aurrekontu Orokorra sei entitatetako Aurrekontuez osatuta dago: Udala, San Martin Egoitza Erakunde Autonomoa, Oñargi S.L., Oñatiko Ur Jauziak S.A., Oñatiko Turismo eta Garapen Ajentzia S.A. eta Merkaña S.L. Erakunde hauetako bakoitzak bere dokumentazioa du (paperean eta GUNEAn) eta bere memoria ere bai. Bestalde, 2017ko urritik, Suradesa enpresa Oñatiko Udalaren menpekoa da (Minhap). Beraz, ondoren emango diren azalpenak, 2018ko Udal Aurrekontuari buruzkoak dira.

Aurrekontuarekin batera banatzen den dokumentazioan Aurrekontu Orokor Bateratuaren informazioa ere ematen da.

1.- Ekonomi egoera

Esan dezakegu, orokorrean, herrialdeko Udalen Ogasunen artean Udal honen ogasunaren ekonomia-egoera zorpetze maila apalekoa dela. Bestalde, krisia dela eta, azken urteotako aurrezki arrunt garbi handia ia erabat desagertu zen 2009-2016 bitartean, baina 2017an eta 2018an gorantzako bideari ekin dio.

Azkenik, aurten ere, inbertsioei aurre egiteko 2.696 mila €-ko maileguaren beharra aurreikusten da, baina bere gauzapena 2017 ekitaldiko emaitzek erabat baldintzatu dezakete, zenbatekoa nabarmen gutxituz edo ezabatuz.

4.- Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ebaluazioa

Kontu-hartzaileak 2/2012 Legean xedatzen diren printzipioak (3. art. eta ondorengoak), egonkortasun printzipioaren gauzapena (11. art.), gastu erregla (12. art.) eta zor publikoaren helburuak kontuan izanik eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko foru berezitasunei buruzko 13/2015 Foru Arauak xedatzen duena kontuan izanik, 1/2013 Foru Arauak eta 2018ko aurrekontuen jarraibideak (2017-11-07koa, GAO 2017-11-16) xedatzen dituen egonkortasun helburua, zor publikoko helburua eta gastu araua betetzen diren ala ez ebaluatu du, eta egonkortasun helburua ez dela betetzen ondorioztatu du Kontu-hartzaileak. AURREKONTU EGONKORTASUNAREN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNAREN HELBURUAK betetzeari buruzko txostena eranskin modura doa 2018ko Aurrekontuaren dokumentazioan. PEFa egiteko betebeharrak zehazteko, 2018ko Aurrekontuaren Likidazioaren bidez egiaztatuko da (2018ko aurrekontuen jarraibideen 1. erregela, azken lerrokada).

5.- Aurrekontuaren edukia

Puntu honetan, 2017ko Aurrekontuaren eta 2018ko Aurrekontu Proiektuaren arteko azterketa orokorra egingo da, ezaugarri erabakigarrienez informatuz, baina kopuruen gehiegizko ekarpenik ez egiteko asmoarekin.

2018ko Udal Aurrekontuaren Proiektu hau 18.777.979,05 €-koa da, iazkoa baino % 2,13 handiagoa (391.167,30 €).

7.- Adierazleak

Aurrekontu Proiektu honen adierazle nagusiak hauexek lirateke:

1.- Sarrera arrunten igoera><(Gastu arruntak+amortizazioa) igoera

Sarrera arrunten zenbatekoa 15.814.363,09 €-koa da, iazkoa baino % **1,15 gehiago**. **Gastu arruntak+amortizazioa**-rena 14.805.730,26 €-koa da, iazkoa baino % **0,65 gehiago**. Ondorioz, aurrezki garbia 1.008.632,83 €-koa litzateke; hau da, iazkoarekin erkatuz, kapital gastuen **autofinantzaketa igotzen da: 1. adierazlea positiboa da.**

2.- Sarrera arrunten ehuneko igoera>< Gastu arrunten ehuneko igoera

"Gastu arruntak" (I-II-III-IV-V kapituluak) % **1,32 igotzen dira**. **Sarrera arruntak % 1,15 igotzen dira: 2. adierazlea negatiboa da.**

3.- (Amortizazioa+interesak) baturaren zenbatekoaren aldaketa

2018 urteko Aurrekontu Proiektuaren interes eta amortizazioen batura 393.018,89 €-koa da, iazkoa baino 100 mila € gutxiago: **3. adierazlea positiboa da.**

4.- Amortizazioa>< Zor berria

2018 ekitaldirako aurreikusitako zor berriak amortizazioak baino zenbateko handiagoa du: **4. adierazlea negatiboa da.** (Begira txostenaren 1. puntua)

5.- Finantza-zamaren bilakaera

Kontutan izanik, 2018ko mailegu berria amortizazio-gabezia dagoela, finantza-zama 662.580,49 €-koa litzateke (iaz, 756.725,28 €-koa). 2017ko ekitaldia likidatzeke dagoenez, finantza-zama hori 2018 Aurrekontu Proiektuaren sarrera arruntekin alderatuko da eta emaitza % 4,19ko zorpetze maila da (2017an, %4,84; 2016an, %8,59; 2015ean, 7,57%; 2014an, 9,38; 2013an, %7,61; 2012an, 8,24; 2011n, %10,01; 2010ean,% 8,20; 2009an, % 7,30; 2008an, %5,87). **5. adierazlea positiboa da.**

6.- Zorpetze bizi erlatiboa

Oñatiko Udalaren zor bizi erlatiboa (% 5) Gipuzkoako 10.000-20.000 biztanle bitarteko Udalen batez bestekoaren azpitik dago (% 13,70) eta baita Gipuzkoako azpitik ere (%28,60-iturria: Udalgida 2017ko zor biziaren datua). Esan beharra dago, azken urteotan Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren fiskalizazio

OÑATIKO UDALA

lanetan Oñatiko Udala ez dela aipatzen zorpetze-maila handiena duten Udalen zerrendan. Ikusi beharko da benetan zenbateko mailegu berria hartzen den 2018. ekitaldian zehar: **6. adierazlea positiboa da.**

8.- Kontu-hartzailearen konklusioa

0.- Argindar sektorea

Oñatiko Udalak bere egoera ekonomikoari asko laguntzen dion ez-ohiko bi diru iturri ditu edo izan ditu:

1.- Oñatiko Ur Jauziak S.A. enpresatik urtez urte jasotzen den finantzaketa desagertzen da.

Enpresa horren etorkizun estrukturalak (eta baita Merkaña eta Oñargirenak ere) gorabehera asko izan ditzake argindar sektorearen araudia asko aldatzen delako eta aldaketa horiek eragin ekonomiko handiak dituztelako. Adibidez, 2000ko hamarkadan 500 m.€ inguruko finantzazioa jasotzen zuen Udalak UJ SATik; 2013an eman zen araudi aldaketa batek 2015eko Ur Jauziak enpresaren sarrerak %47 jaitsi zituen eta horrek behartuta ur- hoditeriaren berrikuntza-plana eten egin zen; 2017an, finantzazioa erabat desagertu zen eta hala jarraitzen du 2018an. Faktore koiunturalek ere eragin dezakete emaitzetan (euri askoko urteak edo argindarraren prezioa ona izateak).

2.- Oñargi S.L. enpresatik partaidetza-kontu gisa jasotzen dena.

2018 urtean zenbatekoa 746 mila €-koa izango da. Horri lokalaren alokairuagatik sarrera txiki bat gehitu behar zaio.

Zenbateko hori ere gorabehera handiekin dabil, Madrilgo irizpide aldaketak direla eta: Aurtengo irizpidea inbertsioen balioa da; aurrekoa, fakturazioa. Horren eragina Udalaren finantzazioan dago: aurtengoa, 746 mila €; 2016an, 233 mila. Urrutirago joanda, 2007an, 938 mila. Ziurgabetasuna oso handia da.

Errepublikatzeak merezi du: Argindar merkatua oso gorabeheratsua da eta baita bere araudia eta irizpideak ere. Horrek eragin nabarmenak ditu Oñatiko Udalaren zenbait enpresatan (Oñargi, Merkaña eta Ur Jauziak) eta, ondorioz, Udalaren beraren finantzazioan; diru-kopuru handiei buruz hitz egiten ari gara eta, sarrera arruntak direnez, Udalaren aurrezki arruntari gogor eragiten diezaioke.

1.- Egonkortasun eta Sostengagarritasun Legea Begira eranskina.

2.- Krisiaren eragina

a) 2008 urteko udazkenetik krisiaren eragina nabaria izan da. Horrela, 2009ko Aurrekontuetan azken uneko emendakinen bidez, zenbait gastu periodifikatu egin ziren eta 2009 urtean zehar, Austeritate Plana abian jarri zen. Azken urteotako Aurrekontuen aldaketen berri emango da, aurreko urtekoekin alderatuz:

- 2010: %-14,39
- 2011: %-2,52
- 2012: %2,69
- 2013: %3,93
- 2014: %3,20
- 2015: %-1,30
- 2016: %18,77
- 2017: %-7,54
- 2018: % 2,13.

b) Iaz bezala, Obren zergan ez da eraikuntza handirik aurreikusten; %10 aprobetxamenduaren sarrerarik ere ez; Zerga Ordenantzaren %1,5eko igoseraren eragina islatzen da. Edozein kasutan, krisiaren eraginik handiena Foru Fondoan eta inbertsioetan nabaritu izan da, nahiz eta azken aldirian, Foru Fondoa gorantz datorren. Hauek dira azken urteotako Foru Fondoaren likidazioak aurreikusitako zenbatekoarekiko:

- 2008: -824 mila €
- 2009: -1.499 mila €
- 2010: -46 mila €
- 2011: -751 mila €
- 2012: -238 mila €

OÑATIKO UDALA

- 2013: -85 mila €
- 2014: 64 mila €
- 2015: 114 mila €
- 2016: -147 mila €
- 2017: 0 € aurreikusten da.

Kontuan izan behar da, urtez urte, Foru Aurrekontuetan aurreikusitako zenbatekoak beti gora joan direla. Datu bat izan kontuan: 2018 urterako 7.494 mila €-ko aurreikuspena, 2007ko Foru Fondoaren likidazioa baino (krisi aurrekoa) 1.013 mila € gehiago da.

c) Inbertsioak: Krisiaren eraginez autofinantzaketa eta kapital diru-laguntzak jaistean, inbertsioak jaitsi ziren (2009ko 4.486 mila €-tik, 2015eko 2.153 mila €-ra). Aldiz, 2017 eta 2018ko Aurrekontuetan asko igo dira (3.737 m €), baina mailegu berri handi batez finantzatuta. Gainera, aurrez aipatu bezala, "Ekipamendu sozialetarako inbertsioak" diru-atala ez da azaltzen Aurrekontu honetan.

3.- Beste datu batzuk

2018ko Aurrekontu honek %2,13 igoera du 2017koarekiko. Hona hemen horren arrazoi nagusia: Inbertsioen igoera eta finantzatzeko, Foru Fondo eta baita Herri Eskolarako diru- laguntza ere. Maila apalagoan arrazoi hauek daude:

a.- Sarreretan:

1.- Zerga Ordenantzaren igoera (%1,5)

b.- Gastuetan:

1.- Maileguen interes eta amortizazioaren jaitsierak. 2.- I. kapituluko soldaten igoera.

3.- II. kapituluarekiko inflazioaren eragina.

c.- 4 adierazle positibo eta bi negatibo daude Aurrekontu honetan.

d.- Krisi garaian aurrezki arrunt garbi positiboa izatea ez da erraza; Oñatiko Udalaren kasuan, bai aurreko ekitaldietako Aurrekontuek eta baita 2018koak ere lortu dute. Hori posible izan da, departamentu guztiek gastuari eusten lan handia egin dutelako, 2008tik hasita.

e.- 2000 urtetik 2008 urtera zorpetze-maila % 22,22tik % 5,87ra jaitsi zen; zor bizia, berriz, 2000 urteko 10,6 milioi €-tik 2008ko 4,1 milioi €-ra. Urte horretan, krisiaren eraginez, inflexio puntua ematen da, zor biziaren igoera-tendentzia bat abiatuz.

2010 ekitaldian kontratatatu zen azken mailegu berria, nahiz eta 2012ko ekitaldia finantzatzeko izan zen eta berriz ere zor bizia jaisten joan da. 2017 amaierarako 0,9 milioi ingurukoa izango da, azken hamarkadetako txikiena.

Azkenik, 2017ko Likidazioko emaitzek baldintza dezakete 2018ko mailegu berriaren zenbatekoa. Aurrekontuan aurreikusten den 2,7 milioiko mailegu berri hori kontratatuko balitz, 2018 amaierako zor bizia ia 3,3 milioikoa litzateke; mailegu berririk gabe, 0,6 milioi € azpikoa.

Ondoren, Alkateak hartu du hitza. Esan du aurten Ordenantza Fiskalen onarpena hilabete aurreratu denez Udal aurrekontuaren lanketa ere hilabete aurreratu dela, eta hori dela gaurko Plenoan aurrekontuaren gaia izatearen arrazoa.

Zenbakietan sartu aurretik, Alkateak eskerrak eman dizkie ekarpenak egin dituzten guztiei. Alkateak argitu du, Bilduren Gobernu programaren konpromisoak betetzeko helburuaz, kontuan hartu dituela iturri ezberdinetatik jasotako ekarpenak, herritarren ekarpenak (100dik gora), eta udal langileen proposamenak eta laguntza. Iaz egin zen moduko prozesu zabalaren abian jarri ez den arren -iazkoak oraindik balioan jarraitzen duelako-, Arazerian jaso ziren proposamenak kontuan hartu ditu Gobernu taldeak. Alde horretatik, beraz, parte-hartu duten guztiak eskertu ditu Alkateak.

OÑATIKO UDALA

Onartzeko aurkezten den aurrekontua orekatua dela dio Alkateak. Defizita izan arren, mailegu baten beharrarekin konponduko dela eta urtearen bukaeran gauzak nola joan diren ikusi ondoren mailegua erabili edo ez erabakiko dela adierazi du alkateak.

Egoera ekonomikoaren testuingurua kontuan hartuz, historikoki zorpetze-maila baxuan gaudela esan du Alkateak. Aurtengo itxiera 900.000 eurotan ibiliko dela esan du. Egoera ekonomiko osasuntsu batetik abiatuta, datorren urteko aurrekontuek inflexio-puntu bat sortzen dutela erreferentziakoak izango diren inbertsio batzuk jarraian egin ahal izateko, eta gerora begira inbertsio plan batekin hasi ahal izateko.

Sozioekonomia: Ana Martin andreak hitza hartu du:

.- Urriko datuak erabilia, langabezia-tasa Oñatin %5,6koa da: 138 gizonezko eta 165 emakumezko. Guztira, 2016arekin konparatuz, %20 jaitsiera egon da.

.- Honela banatzen da herriko enplegua:

6 oñatiar nekazaritzan

140 etxez etxeko zerbitzuan 1739 autonomoak

3.549 erregimen orokorrean

.- 551.000 euroko partida dago eta lerro nagusienak hauek dira:

a.- Ikastaroak (etxez etxekako zerbitzuari buruzko ikastaroak); dena den, eskaeraren arabera, eskaintza beste ikastaro batzuetara zabaldu daiteke, aldez aurretik Lanbideri kontsulta eginda.

b.- Ekintzailetasuna bultzatzen jarraituko da. Olalan-Olaburu enpresa-ekimeneko programarekin jarraituko da, formazioa eta dinamizazioa eskainiz.

c.- Enpresa berrien sustapenari ere jarraipena emango zaio.

d.- Tokiko enplegua bultzatzeko, 20.000 euroko beka-lerro bat ere abian jarriko da.

e.- Herriko merkataritza berpizteko, 40.000 euroko partida bat irekiko da: besteak beste, singular denda proiektua babesteko eta hutsik dauden merkataritza-lokalak berriro ireki daitezten.

Hezkuntza: Nerea Zubiak hitza hartu du:

.- Mantentze-lanetan iazkoen jarraipena egingo da. Iaz ireki zen partida berriak -herri curriculumari dagokiona-, aurten jarraipena izango du DBHko ikasleekin eta partida berezi bat jarri da ginkana bat egiteko.

.- Aisialdi ikastaroak eskainiko dira, eta matrikulak ordaintzen laguntzeko diru-laguntza lerro bat irekiko da.

.- Inbertsioei dagokienez, garrantzitsuena da Errekaldeko sotoa Herri eskolaren erabilerarako egokitzeko egin behar diren lanak: batez ere, hezetasun arazoa konpontzea. Lan horretarako Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren %60ko laguntza espero da, horretarako konpromiso bat hitzartu delako.

Haur eta gazteria: Kepa Zelaiak hitza hartu du:

.- Pisu garrantzitsua hartzen dute Ludotekako eta Gaztelekuko zerbitzuek, Gaztematika programatik abiatuta, indartzeko xedez bide berdintsutik jarraituko da, koordinazioan indar berezia jarritz.

.- Gaztelekuko zerbitzua lizitaziora atera behar da datorren urtean, eta horretarako egungo ordu-kopurua igo egingo da Gipuzkoako hitzarmenera egokitzeko.

- Haurren eta gazteen egiturak indartzen jarraituko da.

.- Aipatutako zerbitzuak lizitaziora atera beharko dira, eta erabiltze-kopurua gehitu denez baldintza-zerrendetan hori aldatu egingo da.

.- Erabiltzaile-kopuruan igoera bat egon denez, Ludotekan zenbait berritze-lan egitea aurreikusten da, besteak beste, paretak margotzea eta lurra aldatzea (5.000 euro).

OÑATIKO UDALA

.- 2014-2017 Gazte-planaren balorazioa egingo da, hurrengo plangintza aldiaren diseinuari ekiteko.

Kirolak: Borja Moiuak hitza hartu du:

.- 1.500.000 euroko igoera bat aurreikusten da (%20ko igoera), kiroldegiko birgaitze- obraren exekuzio-proiektutik datorrena. Gaineratu du proiektua egiteko Udalak 300.000 euroko partida jarri duela. Bestalde, Aldundiaren 450.000 euroko laguntza bat lortu du Udalak horretarako.

.- Eskola kirola programarako (%50) eta Kirol teknikariari laguntzeko (%50) kirol teknikari baten kontratazioa aurreikusten da. Eskola Kirolari bultzada eman nahi zaio, eta horretarako Eskola Kirola elkarteak sortu da hiru ikastetxeekin batera.

Lurralde antolamendua: Irati Etxeberriak hitza hartu du. Atal honetan 5 milioi euro pasatxo aurreikusi dira, iaz baino 24.000 euro gehiago)

.- Zubillagako urbanizazioaren 3. faseko lanak. Horretarako, Altuna etxeetako lurren lagapena ere aurreratuta dagoela esan du (240.000 euro)

.- Irisgarritasun lanekin jarraituko da. Espaloiak konponduko dira, oinezkoei lehentasuna emateko helburuz.

.- Zubillagan dagoen aparkaleku falta saihesteko, Olaburun aparkaleku batzuk egitea aurreikusi da.

.- Casablankako jolas-gunea, 100.000 euro (herritarren ekarpena)

.- Olaran paisaia planaren ondorioz, San Martinen naturarekin lotura izango duen jolas gunea bat egitea aurreikusi da (100.000 euro).

.- San Lorentzo auzoko 9. areako lanak, 240.000 euro.

.- Maiatzaren 1a plazako espaloia egokitzeko, 20.000 euro.

.- San Pedrotik udal artxiboa kendu eta lokala brigadakoentzat erabilgarri izateko, obra batzuk egitea aurreikusi da: aldagelak, biltegia...

.- Bidegorrian komun publikoak jartzea aurreikusi da, baina ur eta saneamendu arazoak daudenez komun konpaktu horietakoak jarriko dira, 10.000 euro.

.- Argiteria publikoa, argiteria kontsumo txikiko sistemara aldatu da (led), baina horrek argiztatze-arazoak eman ditu. Ondorioz, hobekuntzak egingo dira zenbait puntutan : Olakua-Bidedaurreta, 90.000 euro

.- Igeltsero-taldearentzat retro bat erostea, 72.000 euro

.- 80.000 euro, HAPOri hasiera emateko

.- Olaiturri estaltzea LKS-k bere garaian egindako proiektuaren arabera. Goian kirol gunea eta behean salmentarako garajeak eraikitzeke proiekturako (eskaeraren arabera, hilabeteko kontsulta ireki da), 50.000 euro.

.- Hutsik dauden etxebizitzetara buruz egindako galdetegia dela eta, ondorioztatu da zenbait etxe hutsik daudela alokairuan emateko egoeran ez daudelako. Ondorioz, programa-pilotu bat jarriko da abian. Etxeak eraberritzeko diru-laguntza batzuk emango ditu Udalak horretarako prestatuko diren oinarrien arabera. Ondoren, aipatutako etxeak etxebizitza sozial gisa alokatuko ditu Udalak etxeen jabeek emandako diru-laguntza amortizatu bitartean, 100.000 euro.

Auzotasuna: auzotasuna izeneko diru-laguntza programarekin jarraituko da, eta Natur Eskolaren eraberritze-lanen 1. faserako, 185.000 euro jaso dira.

.- Ongizate Zerbitzuak. Alkateak hitza hartu du: 1.781.000 euroko partida du, % 1,23ko igoera duena.

.- Larrialdietarako diru-laguntzak: %8ko igoera aurreikusi da (9.000 euro).

.- San Martin Egoitzari urtero Udalak egiten dion diru-ekarpena. 2008ko Lege baten ondorioz, egoitza Aldundiaren eskumenera pasako da, eta Kabiak hartuko du egoitzaren kudeaketa uztailaren 1etik aurrera. Horrek esan nahi du data horretatik aurrera Kabiak estaliko duela sortzen den defizita. Beraz, datorren urtean ekarpen hori txikiagoa izango da, 85.000 euroko diru-aurrerapena alegia.

.- Esku-hartze psikosozialean, batez ere adin txikien prebentzio alorrean, Oñatiko Udala

OÑATIKO UDALA

erreferente dela esan du Alkateak eta bide horretatik jarraituko da. Egungo programak %50eko igoera izango du, 62.000 euro

.- Oñatiko Udala gizarte baliabideetan aberatsa da. Datorren urtetik aurrera, Errekaldeko beste etxebizitza bat gehituko zaie baliabide horiei. Hori dela eta, etxea egokitzeko partida bat ireki da 35.000 euro.

.- Kultura, Nerea Zubiak hitza hartu du:

.- Bi alorretan banatzen dira diru baliabideak. Batetik, kultur taldeei ematen zaien diru-laguntzak daude eta orain arteko bidean jarraituko du Udalak (Nolanahi ere, diru-laguntzen inpaktua neurtzeko, programa-pilotu baten sartu da aurten Udala Aldundiaren laguntzaz, eta programaren emaitzak kontuan hartuz diru-laguntzen oinarrietan aldaketa batzuk ezarriko dira). Beste alorra, kultura-sustapenari dagokio: ekitaldiak, programak eta hitzarmenak; iazko zenbatekoekin jarraituko du partida horrek.

.- Hasitako kultur azpiegituren eraberritze-prozesuan, berrikuntzak izango dira Kultur Etxean -margotu egingo da- eta Santa Anan. Azken horretan, faseka egingo dira lanak: aurten lurra eta kamerinoak aldatuko dira, 40.000 euro.

.- Parrokiako abesbatzak partida propioa izango du. Horretarako hitzarmen bat sinatuko da, aste honetako Kultura Batzordean onartu dena.

.- Kopuru jakin bat zehaztu gabe izan Musika banda. Hitzarmena sinatuta dago, baina bukatzeaz dagoenez berria egingo da. Igoera izango du, bandan bost musikari berri sartu direlako.

.- Eusko Ikaskuntzaren urteurrena ospatuko denez eta aste bateko topaketak egitea aurreikusten direnez, 18.000 euroko partida berri bat irekiko da datorren urtean.

.- Informatikan ere hobekuntzak aurreikusten dira, eta informatika partidan jaso dira. Hobekuntzaren ondorioz, sarreren salmenta on-line egitea ahalbideratuko da eta Totem bat ere jarriko da horretarako, 12.000 euro.

.- Euskara. Nereak esan du Euskara sustatzeko plana bukatzen dela eta betetze maila altua izan dela. Datorren urtean plan berri bat diseinatuko da herritarren partaidetzarekin eta horretarako partida berezi bat jarri da. Beste erronka bat da helduen hizkuntza-ohituretan interbentzioa ahalbideratuko duen plana egitea, eta horrek ere partida berezi bat izango du.

.- Eusko Jaurlaritzak 2018rako Euskara egitasmoa martxan jarriko du.

.- Euskararen ospakizunen inguruan (kilometroak, ibilialdia...) lerro bateratu bat egingo da, garaiak aldatu direlako eta hausnarketa bat eskatzen duelako.

.- Berdintasunean, Leire Zumaldek hartu du hitza. Esan du Berdintasun Planarekin jarraituko duela Udalak: Emakumeen kontseilua sortuko da eta herriko jaietan emakumeen partaidetza aktiboa sendotzeko lanketa bat egingo da. Horrez gain, indarkeria jasotzen duten emakumeentzako protokolo bat abian jarri du Udalak. Jabetza-eskola hausnarketa-prozesuan dagoela eta modu egonkorrean jarri beharra ikusten dela. Horretarako, lanpostua sortu eta behin betiko atera nahi dela adierazi du.

.- Partaidetzan, Nerea Zubiak esan du Gobernantza-ereduarekin jarraituko dela.

.- Eltzia 2016tik pisu handia izan duela, eta 2018rako erronka dela lan horiek bukatzea. Datorren urterako, teilatua konpontzeko, fatxada pintatzeko eta patioa erabilgarri izateko, 100.000 euroko partida jarri da.

.- Eltzia lotuta, diru-laguntza lerro bat jarri da, eltzekideek kudeaketan Udalaren laguntza izan dezaten. Lehen, partida hori Kultur zegoen, baina egokiago ikusi da Partaidetzan sartzea.

.- Kanpoko aholkularitza mantentzea proposatzen da, elkartegintzako mugimenduaren datu basea bukatu, auzogintza indartu eta aurrekontu prozesu berezi bat irekitzeko.

.- Azkenik, zera adierazi du: HAPOren garapenak datorren urtean pisu handia hartuko duela departamenduan.

Ondoren, Lurdes Idoiak hartu du hitza. Esan du EAJ alderdiak landu eta aztertu duela gobernu-taldeak proposatutako 2018ko aurrekontua. EAJ oposizioan dagoela eta EH Bilduk duela gehiengoa, eta alderdi horretatik bakoitzak bere ardurak eta betebeharrak bereganatu behar dituela. Oraingo aurrekontuetan, aurrekoetan bezala, EAJkoak arduratu direla propositiboak izaten, eta oposizioan egonda beren lan nagusia gobernu-taldearen kontrola egitea dela, arlo juridikoan zein ekonomikoan. Nolanahi ere, alderdi kritiko hori alde batera utzita, aurten ere aurrekontuak hobetzeko 40 proposamen egin dituztela 40 -horietatik 26 herritarrek proposatutakoak dira-, eta gainerakoak EAJren programatik datozenak (14). Aukera hau aprobetxatu nahi izan du parte-hartze prozesuan herritarren aldetik jasotako laguntza eskertzeko..

Lourdesek esan du jasotako proposamen-sorta horretatik 26 bideratu dituztela aurrekontuetara, eta gainerakoak urtean zehar lan-batzordeetatik bideratzen saiatuko direla.

Proposamenen aurrean, honako hau izan da EH Bilduren jarrera: 17k ezezko borobila jaso dute, 7k baiezkoa eta 5ek interesezkoak direlako adierazpena jaso dute; 6 noiz egingo diren zehaztu gabe geratu dira, eta 5 erantzunik gabe. Nolanahi ere, beste urte batzuetan gertatu den bezala, aurten ez bada beste urteren batean gauzatuko edo gutxienez kontuan hartuko diren konfiantza duela argitu du Idoiak, eta EAJk horrela izan dadin eskatzen jarraituko dutela.

Idoiagak esan du EAJren helburu nagusia adin guztietara egokitutako herri bizia eraikitzea dela, eta horretarako 4 ildo estrategiko dituen politika parte-hartzailea eta transbertsala proposatzen dutela:

- 1) Herri biziaren garapena, herri parte-hartzailea, demokratikoa, bakea eta bizikidetzaren egokia sustatzea helburu duena.
- 2) Kirola eta osasuna, adin guztiei egokitutako kirol osasuntsua sustatzea helburu duena.
- 3) Sozioekonomia landu eta garatzea helburu duena (merkataritza/ostalalaritza, autonomoak, Pymeak, langabeak, ekintzaileak...).
- 4) Pertsonen ongizatea: segurtasuna eta bizi kalitatea hobetu eta bermatzea helburu duena.

Sarrera hau egin ondoren, arlo bakoitzeko proposamenak aurkeztuko dituztela esan du Idoiak, eta bukaeran, botoetara jo aurretik, Udaleko azterketa ekonomikoaren balorazioa egingo dutela argitu du.

Jarraian, Amaia Erostarbek hartu du hitza. Kultura, Partaidetza, Euskara- Hezkuntza, Berdintasuna eta Gazteria alorreko proposamenak aurkeztu ditu:

1.- Kultura arloko EAJren proposamenak hauek izan dira:

a.- Herriko kultura-baliabideen eta kultura-guneen inbentarioa egitea; baita ekintza- plana lantzea etorkizunean herrian sortu daitezkeen beharrak ezagutu ahal izateko. Proposamenaren helburua da egungo egoeraren berri zehatza izatea, indarguneak non dauden zehazteko eta ahulgunerik dagoen ala ez jakiteko.

Proposamenak erantzun hau jaso du: kultur guneen jarraipena kultura arloko arduradunak egiten duela, eta alde horretatik herriko kultur guneak inbentariatuta eta identifikatuta daudela.

Erostarbek adierazi du Oñati herri bizia dela eta kultur ekitaldi ugari izaten dituela. Hori dela eta, gune ezberdinak erabiltzen direla eta kultur ekitaldia dagokion gunean kokatu ahal izateko egin dutela proposamena. Gaineratu du etorkizunari begira egindako proposamena dela, eta EAJren iritziz, antolaketan lagungarria izateaz gain, gabeziak ezagutzeko ere tresna egokia izan daiteke.

OÑATIKO UDALA

b.- Urteko Kultura saria

Eskaera ez da berria eta helburua da herriko kultura-giro aberatsa sustatu duten herritarrei sari baten bidez egindako lana eskertzea. Emango liratekeen sari guztietarako 6.000 euroko partida bat eskatu da.

Erantzuna, iazko bera izan da: ez dela egokia, aitortza bat izan beharrean sana ez den kompetentzia bat sortu dezakeelako eragileen artean.

Udalak urtero banatzen ditu erakusleiko onenentzako sariak edo kirol sariak, eta ez da ulertzen zer-nolako kompetentzia berezia sortuko lukeen kultur arloan ere sariak banatzeak. Berrero esan du oñatiar batek baino gehiagok mereziko lukeela Urteko Kultura saria.

c.- Lankidetzak hitzarmenak: Musika Banda (6.000 euro) eta Parrokiako abesbatza (3.000 euro). Azkenean gauzatuko dira (bat indarrean bestea sinatzeaz). Bi musika talde horiek herritarrei (herriari) zenbait musika emanaldi eskaintzen diete eta hitzarmenen bitartez ohiko gastuetarako Udalaren laguntza bat izatea nahi dela. Gainera, Musika bandak 10 musikari berri dituela aipatu du.

2.- Partaidetza

a.- Partaidetza Ordenantza bat egitea. Helburua da bitarteko egoki bat izatea oñatiar guztiak inplikatzeko herrigintzan eta udal erabakietan. Ez da onartu, eta erantzuna hau izan da: Ordenantzaren helburua argitu beharra dagoela, eta hori Ordenantza prestatu aurretik adostu beharko litzatekeela.

b.- Gogora, Memoria, Elkarbizitza eta Giza Eskubideen Institutuak proposaturiko proiektuetan parte-hartzea. Iaz ere eskatu zen eta helburua da Oñatiko herrian ere memoriaren, elkarbizitzaren eta giza eskubideen aldeko lanketa-plana sortzea.

Garbi dago gai horren inguruan EAJK eta EH-Bilduk ikuspegi ezberdinak dituztela, eta proposamena onartu ez duen arren Gobernu taldea lanketa bat egiteko prest agertu da.

3.- Euskara-Hezkuntza. Nekane Maiztegi hartu du hitza eta hainbat proposamen jarri ditu mahai gainean. Aipatu du jatorri anitzeko haur eta gazteen eskolaratzeari bultzada bat ematearen aldeko proposamenak direla eta euskararen erabilera bermatu eta sustatzearen aldekoak:

a.- Baliabide ekonomiko gehiago bideratzea jatorri anitzeko ikasleei, euskarazko nahikoa errefortzu-eskola eskaini ahal izateko. 10.000€

Azkenengo bi urteetan nabarmen igo da jatorri anitzeko ikasleei zuzenduriko zerbitzuaren erabilizailen kopurua. Orain dela bi urteko ikasturtearekin konparatuta, 21 haur eta gazte gehiago dago zerbitzuan, guztira 59 ikasle dira aurretik. Horrek zerbitzuan egokitzapen batzuk egin beharra ekarri du, eta adibide gisa galdu diren zerbitzu batzuk aipatu ditu: Gaztelekuak kokatuta dagoen zerbitzuan, astelehenetako euskarazko errefortzu-eskola pertsonalizatuak desagertu egin dira, eta baita integrazioa lantzeko ostiraletan nerabe guztiak bi orduz elkarrekin aritzeko sortutako taldea ere.

Gobernu-taldearen erantzuna izan da 60 ikasletik gora pilatuz gero zerbait egin beharko litzatekeela. Dena den, EAJren ustez, ikasleen gorabeherek ez dute justifikatzen egon diren murrizketak.

b.- Jatorri anitzeko ume eta gaztetxoaren eskolaratzea diruz laguntzea hasierako uneetan (kirola egiteko materiala, eskolako liburuak eta/edo materiala). 6.000€

Jakina da hasieran etorri berri diren pertsonen egoera ekonomikoa sarritan ez dela ona. Egoera bakoitza aztertu beharko litzateke, eta bakoitzaren beharren arabera diruz lagundu, ez zerbitzu horien erabilizailen izateagatik soilik.

OÑATIKO UDALA

c.- Eskolatik atera ondorengo uneetan euskararen erabilera gidatuko duten monitoreak jartzea herriko jolasgune nagusietan. 6.000€.

Haur eta gazteek eskola-orduetan nagusiki euskara erabiltzen dutela ez dago inolako zalantzarik, baina ez da gauza berdina gertatzen haur horiek eskolatik irteten direnean. Toki edo espazio ludikoetan ere euskararen erabilera egokia bermatu ahal izateko egin da proposamena.

d.- Oñatiko hiztegia (G. Markuletaren lana) mugikorrean kontsultatu ahal izateko App-a sortzea.

Badakigu lan hau udaleko webgunean dagoela modu digitalean eskuragarri; baina webgunearekin konparatuta erabiltzeko aukera eta erraztasunak ematen ditu app-ak.

Bukatzeko, Nekanek esan du egindako proposamenetatik bat bera ere ez dela onartua izan.

3.- Haur eta Gazteria. Marijo Etxegoienek hartu du hitza eta proposamen hauek egin ditu:

a.- Gazte Plana landu: Oñatiko gazteekin batera, beharrak identifikatu eta horien arabera dagokion laguntzak proposatu.

EAJren ustez, bereziki 14-20 urteko gazteek dute hutsune hori. Proposamenak Bilduren oniritzia jaso du, eta 2018rako plangintza bat diseinatzen hasteko konpromisoa jaso dugu.

b.- Gazte Plana martxan jarri bitartean, eta gazteek horrela eskatu dietelako ondorengo proposamenak egiten ditu EAJK:

.- 12-18 urte bitarteko gazteentzako Udaleku ireki ezberdinak, antzerki udalekuak, musika udalekuak, udaleku teknologikoak (robotika, bideo-jokoen sorkuntza, 3D diseinu eta sorkuntza, Dronak, mekatronika, musika digitala...).

.- 14-20 urte bitarteko gazteentzako ikastaroak: ludikoagoak -adibidez, sukaldaritza, karikatura, argazki urbanoa, Longboard (skate), parkour-; edo hezitzaileagoak, jende aurrean hitz egiteko ikastaroa, emantzipazioa autogestionatu eta antolatzeke ikastaroa (etxeko lanak, diruaren kontrola...).

Bilduk erantzun du onartutako partidaren barnean sartzen direnak gauzatuko dituztela.

3.- Berdintasuna:

a.- Oñatiko Berdintasun Planaren zati handi bat enplegua, lana, enpresek... betetzen dute. Ezaguna da emakumeek lan munduan sufritzen duten diskriminazioa. Hori dela eta, Oñatiko langile, sindikatu eta enpresekin batera, enpleguan eta lan arloan emakumeen eta gizonen berdintasun eskubideak bermatzeko eta enpresen kultura eta jarduera kontziliazio erantzunkiderantz aldatzea sustatzeko plana egiteko proposamena da.

EH Bilduk erantzun du gaia garrantzitsua izan arren, badaudela lehentasun handiagoko esparruak.

b.- Oñatiko leku ezkutua identifikatu eta argiztatzea. 2013an egin zen mapan identifikatutako gune ilunak berraztertzea, eta berriak dauden edo ez identifikatzea, eta guztiak kentzea.

EH Bilduk beharrezkoa eta egokitzat jo du proposamena.

c.- Emakume Kontseilua martxan jartzea. 2015. urteko aurrekontuetatik datorren gaia izan arren oraindik ez da ezer egin, eta beharrezkoa jotzen da.

4.- Kirolak.

Ritxar Fernandezek hitza hartu du. Esan du honako hau dela helburu orokorra: oñatiarrek

kirol-jarduera osasuntsua egiteko duten ohitura indartzea, eta, kiroletarako sortu zen —talde-eragileall-k esan zuen bezala, Kiroldegia berritzeaz gain kanpoko kirol ekipamendu irekiak indartzea. Azken hori izan da EAJren azken 3 urteetako planteamendua; beraz, berriro eskatzen da kanpoko kirol ekipamenduak sortzea edo daudenak indartzea.

Gainontzean, EAJk proposamen hauek egin ditu:

- 1.- Igerileku irekia izango duen aisialdi gune berria sortzeko proiektua egitea.
- 2.- San Martinen korrika egiteko bidexka bat egokitzea. Horri lotuta, kiroleako talde eragileak bere txostenean aipatzen du proposamen horrek balorazio ona izan duela erraztasunagatik eta bideragarritasun aldetik.
- 3.- Urrutxun atletismo pista egokitzea.
.- Oñatiko atletismo taldeak hainbat sari jasotzen ditu, baina entrenamenduetarako kanpora joan behar izaten dute. Horri lotuta, kiroleako talde eragileak Urrutxuk duen potentzial handia nabarmentzen du.
- 4.- Kiroldegiko igerilekuan 2-3-kale gehiago egitea.
- 5.- Kiroldegian, pertsona nagusientzako kirola egiteko makina egokituak jartzea. Erantzuna izan da aztertuko dutela.
- 6.- Kirol teknikari baten plaza sortzea lanaldi osorako. Kirol arloko programazio/planifikaziorako (Kirol hastapenerako gidaritzak eta aholkularitzak) Erantzuna izan da egun erdirako langile baten kontratazio prozesuan ari direla. EAJrentzat motz geratzen da.
- 7.- Kirol programak uztartzea: Adin guztietarako (osasuna eta kirola); Adinekoendako (kirola eta erorketen prebentzioa). Proposamena onartu da.

5- Sozioekonomia

Jon Kepa Gerrikagoitia jaunak esan du gobernu-taldearen proposamenak arlo honetan pobeak direla eta egindako zenbait proposamen kezkarriak iruditzen zaizkiola. Bereziki, Cowork gunea aipatu ditu. Adierazi du argazkirako egindako zerbait dela eta planteatu den moduan ez dela eraginkorra. Gerrikagoitiaren iritziz, inizatibak arrakasta izan ahal izateko masa kritikoa behar da, eta horretarako dinamizazioa beharrezkoa ikusten du EAJk.

Horri lotuta, "Ekintzaileentzat laguntzak: tutoretzarako aholkulari espezializatuen laguntza kontratatzea" aipatu du, 2016an EAJk egindako eskaera. Cowork gunearen inplantazioan aprobetxatu egin beharko litzateke enpresagintza fakultatearen eta LEINN graduako adituen esperientzia.

Bestalde, adierazi du EAJren proposamenak hiru ardatzetan antolatu dituztela:

a.- Enplegu plana

"Lanzadera de empleo" dinamikak langabeentzako, talde-lanean lan berriak bilatzeko trebakuntza, enpresa-sortzaile moduan proiektu propioa sustatzea.

Enpresa ekimenei lehiaketa. Sortu berri den co-work gune berriaren baitan.

b.- Merkataritza plana

Berrikuntza teknologikoa merkatariei zuzenduta:

Kontsumo ohiturak azkar aldatzen ari direnez, merkataritza elektronikoak goraka nabaria izan du. Kontsumitzaileen %27k erosketak internet bitartez egiten ditu astero. Beraz, tokiko merkatariek ecommerce-ren aldeko apustua egin beharko lukete.

Horretarako, Eusko jaurlaritzak eta SPRik ateratako "activa tus ventas online" programan inspiratuz, merkatarientzako ecommerce programa martxan jartzea da EAJren proposamena, honako sailkapena eginez:

- “Implantación eCommerce” online presentzia duten enpresak, baina denda birtuala ez dutenei zuzendua.
- “Optimización eCommerce”: online salmenta dutenak, baina hobekuntza behar dituztenak.
- “Venta en redes sociales” sare sozialetatik salmenta bultzatzeko.
- “Venta webs externa”s, agregadoreen ahalmenak baliatzeko.

Nahiz eta edermobility-rekin esperientzia-pilotu bat martxan jarri den eta inizatiba interesantea izan arren, EAJK erredukzionista ikusten du. Errekaduak etxera eramateko balio dezake, baina ez du produktuak merkaturatzea ahalbidetzen.

Belaunaldi erreleborako Merkataritza, Enpresa Txiki eta Autonomoentzako diru- laguntzak

Gaur egun, Oñatin, itxita edo ixteko zorian dauden merkataritza-lokalak hainbat arrazoiengatik daude itxita, besteak beste, errelebo faltagatik. Ondorioz, negozioen jarraipena bermatzeko neurriak hartu beharko lituzke Udalak:

.- webgune bat sortuko genuke non:

Eskualdatzen diren negozioen poltsa, ekintzaile berriek horren berri izan dezaten.

Aholkularitza juridikoa.

Formakuntza.

Diru-laguntzen tramitazioa.

Salmenta-puntuaren diagnostikoa eta hobekuntza posibleak

Neurri horien bitartez lortuko lirarteke:

I.- Ekintzaileak aktibitate gabeko lokalen berri izatea.

II.- Aktibitate errotazioa sustatzea zerbitzu eta merkataritza guneeetan. III.- Lokalen aktibitate ezak gutxitzea.

IV.- Eskari eta eskaintzaren ezagutza zehatza izatea; salneurriak, eskualdatze denborak eta interesgarriak izan daitezkeen datuei buruzko informazioa eskaintzea.

V.- Jabe eta ekintzaileen arteko hartu-emanak sortzea.

Leihatila bakarra udal zerbitzua martxan jartzea (presentziala eta birtuala), ekintzaile, ETE, autonomo eta lehen sektoreari zuzenduta, prozedura administratiboak eta arintzeko tutoretza eskainiz (baimenak, kreditazioak, baliabideak, zerbitzuak...)

c.- Turismo Plana

Turismo Plana egitea, turismoak herriko merkataritza eta ostalaritzan duen eragina sustatzeko, horretarako markatu behar diren helburu estrategikoak definitu eta epealdirako ekintza-plana finkatu...

Gestoreak / kudeatzaileak enpoderatzea da helburua. Aginte-koadroak ezarri. Turismoa kudeatzeko teknika eta metodoak aplikatu. Unibertsitateak eta erakunde espezializatuak turismo kudeaketan laguntzeko.

Horri lotuta, Gernikako kasua aipatu du adibide gisa. Joan zen astean – Movell konferentzian azaldu ziren datuak, eta metodoak Oñatin ere aplikagarri direla adierazi du.

6.- "Pertsonen ongizatea: segurtasuna eta bizi kalitatea hobetu eta bermatzea helburu duen ardatza". Esparru honetan Lourdes Idoiak hartu du hitza. Proposamen hauek egin ditu EAJren izenean:

Hirigintza eta zerbitzuak:

a.- EITak lortzeko diru-laguntzak:

OÑATIKO UDALA

EITren (Eraikinen Inspekzio Teknikoa - I.T.E.) aginduz egin beharreko obrak egiteko, diru-laguntza lerro bat arautu (3 urterako plana). Oinarrietan zehaztu beharko lirateke baldintzak, beti ere eraikinaren egitura, irisgarritasuna eta efizientzia energetikoa hobetzeko helburua izango luke.

Diru-laguntza arauak indarrean egoteko epea 2018 martxoaren 31 da. Kontuan izan behar da, bestalde, 2018ko ekainaren 27a baino lehenago egin behar dutela EITa 50 urte baino gehiago duten etxeek. Eskaera izan zen 150.000€ partida bat irekitzea.

Diru-laguntza horien onuradunak alde zaharrear kokatzen diren eraikinak izango lirateke, eta bertan bizi diren pertsona nagusiak (pentsio txikiko pertsona nagusiak eta ahalmen ekonomiko urria dutenak). Euskadi Lagunkoia mugimenduak ITEa lortzeko diru-laguntzak ematea aholkatu du.

Gainera, laster baserrietako ITEaren Dekretua ere etorriko da, eta orain egiten denak ordurako ere balioko du.

EH Bilduren erantzuna ezekoa izanda, eta honako hau planteatu du: 100.000 euroko partida bat irekitzea baldintzak betetzen dituztenei obrak egiteko mailegu bat emateko Udalak berak, eta ondoren mailegua amortizatu bitartean Udalak etxebizitza horiek errenta sozialean ematea.

EAJren proposamena sinpleagoa eta zuzenagoa zen, gazteen emantzipaziorako ematen diren diru-laguntzen modukoa.

b.- Marcelino Zelaia/ Aita Lizarralde parkean igogailuetarako bidearen irisgarritasuna hobetzea. 30.000€ . Bertako bizilagunen eskaera zuzena izan da. Gobernu taldeak onartu egin du.

c.- Parrokiako irteera eta hilerriko kapera aurrealdeak argizatzea. Hori egiteko agindua emanda dagoela Erantzun dute.

d.- Olakua auzoa: irisgarritasun planaren beste fase berri bat egin, lehenetsiz Olakua- Olapotoko proiektuaren idatz-lanak, hau EAJk iaz ere eskatu zuen.

Horri lotuta, argitu du EAJren legegaldian San Lorentzoko auzoko irisgarritasunari eman zitzaiola lehentasuna. Izan ere, auzoa berriagoa izan arren, irisgarritasun arazo serioa zuen. Orain, berriz, Olapoto-Olakua auzoari eman beharko litzaioke lehentasuna.

EH Bilduk erantzun du Olakuako irisgarritasun-plana egitea beharrezkotzat jotzen dutela; hau da, irisgarritasuna eta argiztapena hobetzea.

e.- Bizikleta eta patineteen zirkulazio Ordenantza egin eta behingoz indarrean jarri.

Iaz ere gauza bera eskatu zen, herritar askoren kezka delako. EH Bilduk erantzun du proposamen bat jasoa dutela, eta dagokion azterketa egin ondoren gauzatuko dela.

d.- Tabernen Ordenantza egin eta indarrean jarri.

Ordenantza proposamen bat iritsi zen aurten Hirigintza Batzordera, baina Eusko Jaurlaritzak Joko eta Ikuskizun erregelamendu berri bat onartzekotan zebilelako azkenean mahai gainean geratu zen. Kontua da herritarrak tabernetako zaratak eta molestiak pairatzen ari direla -horren adibide da Pleno honetan orain urte eta erdi Kale Zaharreko bizilagunek egindako kexa- eta 2008ko Tabernen Udal Ordenantza indarrean dagoenez, berria onartu bitartean, gutxienez dagoena aplikatzea eskatzen da, zarata mugagailuak Udalaren aginduz berriro abian jarritz. Hori da EAJren eskaera.

e.- Larunbat eta jai-bezperetan udaltzainen zerbitzuak gaueko txanda ere egitea. Sortzen diren arazoaren aurrean norengana jo edukitzeko.

OÑATIKO UDALA

Bilduren erantzuna: ezer erabaki aurretik zerbitzuaren eraginkortasuna eta kostua aztertu nahi dutela, eta Ertzaintzak egun Oñatiri eskaintzen dion zerbitzua ere aztertu beharko litzatekeela.

f.- Arazerixan sortutako eskaera bat: Bidebarrietan jolas parke bat estaltzea, 40.000 euro.

Bilduren erantzuna ezezkoa izan da. Olaiturrin egin nahi den proiektua aipatu dute. Gainera, 40.000 euro ez dira nahiko estalpe bat egiteko.

Ingurumena eta landa auzoak:

Idoiagak proposamenak irakurri ditu:

1.- Landa auzoetarako argiteriaren plan orokorra egitea (jasangarritasuna oinarri hartuta LED, ordutegi mugatua, oinezkoen mugimenduari egokituta, etab., baserrietarako bideak, pasealekuak). 2018an plan orokorra egitea eta lehen zati bat argizatzea. 30.000€.

Gobernu-taldearen erantzuna: gaia Batzordean aztertu da, eta badago beharrezkoak diren puntuak argiztatzeko konpromisoa.

2.- Mugarrien digitalizazioa, lehenasunezkoa dela esan du eta beste herri batzuetan jada egin den lana dela. Hainera, hiri-lurraren katastroaren ponentzia egiten denerako balioko lukeen tresna bat izango litzateke, 40.000 euro.

3.- Baso pista orokorren inbentarioa eta kudeaketa. Suebakiak, biodibertsitatea eta abar landuz. 20.000 euro

Aldundiak badu pisten inbentario bat, baina honako hau eskatzen da: beharrezkotzat jotzen direnen sarea definitzea, mantentze-lanen plana egitea eta kontserbaziorako kudeaketa plan bat egitea.

4.- Zabor-bilketa 5. edukiontzi bidez ezartzea.

Bilketaren emaitzak berdinak izanik, merkeagoa eta erosoagoa den sistema jartzea. Honen harira Udalak egindako inkestan herritarrei egin zitzaion galdera aipatu du Idoiagak, izan ere hauxe zen galdera: egungo sistemarekin zer moduz moldatzen zara? Idoiagaren iritziz, herritarren erantzuna begi-bistakoa zen. Nola esango dute ez direla moldatzen, herritarrek ez dira dorpeak, baina galdera beste modu batean egin balitz erantzuna ere beste bat izango litzatekeela esan du.

Gizarte politika:

1.- Oñatiko Udalerria "Euskadi Lagunkoia" mugimenduak sustatzen duen programara atxikitzea. Mugimendu horren helburua da pertsona nagusientzat eta oro har adin guztietako herritarrentzat hirigune/ ingurune atseginak sortzea.

Lehenengo aldiz, paradigma berri bat aurrean bizi gara: 4-5 belaunaldi batera bizi gara, eta ondorioz etorkizunerako bisio aldaketa bat eskatzen du. Bilduren erantzuna izan da "programa interesgarria dela eta Batzordean aztertzea.

2.- "Escuela de la Experiencia" abian jartzeko eskaintza aztertu, adineko pertsonen informazioa/programa ereduak helarazi, propio zuzendutako inkesta egin eta esperientzia martxan jarri. Bilduren erantzuna: interesgarria da eta Batzordean aztertzea proposatu du.

Bukatzeko, proposamen orokor bat mahaigaineratu ditu Idoiagak:

.- Udaleko Antolaketa Erregelamendua egitea (ROM). Erantzuna izan da egokia ikusten dutela eta arautegia landuko dutela.

OÑATIKO UDALA

Ondoren, Idoiaga andreak Udalaren arlo ekonomikoa jorratzen jarraitu du eta honako hauek esan ditu:

1.- 2017ko udal aurrekontuen gauzapena/ exekuzioa

2017ko aurrekontuaren gauzatu den edo agindutakoa bete den jakiteko aurre azterketa bat egin dugu azaroak 15eko datuekin, eta aurreko bi urteetako konklusio berdina ateratu dute.

.- 2017rako aurrekontuetan Gobernu taldeak 3,6 milioi euroko inbertsioak egingo zituela agindu zuen. Eta orain arte bakarrik 2,1 milioi exekutatu ditu (%58) .

.- 1,5 milioi euroko inbertsioak oraindik egin gabe daude.

.- Falta direnen edo bueltaka dabilzanen artean hauek aipatu ditu:

Olakuako obrak (262.000€), hasita baina likidaziorik ez dago; San Lorentzoko bidegorria (2016an 230.000€-ko aurrekontua eta %0 exekutatu, 2017an 240.000 € eta erdia bakarrik); HAPOa hirugarren urtean bueltaka (80.000€) eta "0" egin da; jolasgune/parkeak (2016an 210.000€ eta 0 exekutatu, 2017an 50.000€ eta 0).

Aipamen berezia merezi du Etxaluzeko parkearen proiektuak: 2016an, 120.000€ eta ez zen ezer egin; 2017an, parke berdinerako 275.000€ eta ez da ezer egin; 2018an, parke berdina bueltaka eta oraingoan 400.000€-ko aurrekontua, hau da, 3 urteetan aurrekontuak 280.000€-ko gorakada izan du.

Idoiagak Idoiagak aurten ere, berriro, komentario berdina errepikatu beharrean dagoela EAJ: Udaletxean gertatzen ari dena planifikazio txarraren ondorio garbia dela. Herritarrei 3,6 milioiko inbertsioak agindu, eta momentuz bakarrik 2,1 milioiko obligazioa dago onartuta.

2.- Gobernu-taldeak 2018rako aurkeztu dituen aurrekontuei buruz.

2018ko aurrekontuei buruz, berriro ere, kontu-hartzaileak txostenean errepikatzen duena hau da: " Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraunkortasunari buruzko ebaluazioan" "... egonkortasun printzipioaren gauzapena, gastu erregela eta zor publikoaren helburuak kontuan izanik eta Foru Arauek... xedatzen duena ere kontuan izanik "2018ko aurrekontuen jarraibideak xedatzen dituen egonkortasun helburua, zor publikoko helburua eta gastu araua betetzen diren ala ez ebaluatu du eta Plan Ekonomiko Finantzario baten beharra dagoela ondorioztatu du Kontu- hartzaileak...". Guzti honren esanahia aurrekontu desorekatu batzuen aurrean gaudela da, eta datozen hiru hilabeteetan –doiketarik ez badira egiten Udala P.E.F bat egitera behartuta egongo dela, hau da, iazko akats bera errepikatuko dela.

2018ko aurrekontuak duen defizita, berriz ere, egin gabe utzitako inbertsioekin estaliko da. 2018rako 3,7 milioiko inbertsioak aurreikusi ditu Gobernuak, baina aurreko urtean bezalaxe bakarrik 2,5 milioi euro exekutatu dira. Ondorioz, Idoiagak galdetzen du ia ez den hobe, exekutatzeko moduko aurrekontu batzuk aurkeztea (2-2,5 milioiko inbertsioak) Udalaren oreka ekonomikoa zalantzan jarri gabe. Herritarrei agindu baina gero ez betetzeak, bere ustez, gestio-eredu txarra adierazten du.

2018ko partida batzuen inguruko EAJren irizpidea:

.- Kirolak/ Kiroldegiaren eraberritze-lanak. Aurten dagoeneko 4. aldiz egiten da aipamen bera. Urteetan gaiari bueltak eman ondoren, 2018an oraindik ez dago instalazioak berritzeko partida zehatzik, proiektua egiteko 300.000 euroko partida bat baino ez.

2015eko aktan jasota dago 2016ko urtarrilerako proposamen zehatza izango zuela gobernu-taldeak. Ordutik bi urte pasa dira, eta garbi dago 2019a baino lehenago lanak ez direla hasiko.

.- Jolas parke/guneen proposamenekin EAJ ados dago, baina Bilduren proposamenak inbertsio-

OÑATIKO UDALA

kontzentrazio handia dakar. Horrek beste proiektu batzuk kanpoan uzten ditu, zenbakietan: azken aurrekontuetan 1,2 milioi euro sartu dira: ETEO 500.000, Jolas parke orokorra 120.000, Bidaurretako dorreko parkea 90.000, Etxeluzekoa 400.000, Kasablanka, 100.000 eta San Martin 100.000. Jolas parkeak era sailkatu batean gauzatuko balira, Olakua eraberritzeko edo igerilekua eraberritzeko partidak egongo lirarteke.

Gai horri lotuta, Etxeluzeko parkean 400.000 euro gastatzea astakeria iruditzen zaiela esan du Idoiak. Proiektu xumeagoak eta austeroagoak egitea proposatu du.

.- Araotzeko ostatu-etxea (Casa Rural) 1. fasea sartu da aurrekontuetan.

Orain hilabete Batzordean hitzarmen baten zirriborroa aurkeztu zen. Bertan adieraziten zen proiektu horren helburua Araotz berpiztea dela. Finantziario iturriak ere aipatzen dira bertan, Eusko Jaurilaritzak Erein programatik %50 eta Udalak eta auzoak erdibana gainontzeko %50a. Joan zen astean jakin zen Proiektuaren arabera nesken eskola deituriko eraikinaren obrak 500.000 euroko aurrekontua izango zuela, baina inon ez da aurkeztu beharrezkoa den ostatu-etxearen bideragarritasun-plana eta gainera EAJK ez daki proiektu hori Auzo alkateen foroan aztertu den ala ez, aztertu beharrezkoa izan arren.

EAJ ez dago Araotz, Arantzazu edo Urrexola edo beste auzoak berpiztearen aurka, ezta auzoak berpizteko diru-laguntzak ematearen aurka ere, baina EAJri iruditzen zaio horrelako proiektu bat modu horretan aurrekontuetan sartzea guztiz prezipitatu dela, dirutza hori gastatuta turismoa indartuko den zalantzak izateaz gain ez dagoelako horren oinarri den inolako ikerketarik eginda.

EAJK Aldundiak proposatutako Berpiztu programa bat landu zuen Araotz, Arantzazu eta Urrexolako auzotarrekin. Lanketa sendoena (Etorlur) Araotzen bertan egin zen. Helburua zen bizilagun berriak eramatea baserrietara. Horrek Arau Subsidiarioen aldaketa bat abian jarri zuen; baserriak eraberritu edo bikoizteko diru- laguntza programa bat egitea; inguruneari egokitutako etxebizitza-apartamendu berrien programa bat; alde zuzenetik inkesta bat egitea, jakiteko benetan interesa zegoen ala ez bertara bizitzera joateko.

Ondorioz, proposamena hobeto aztertu eta landu behar dela uste du EAJK. Eskaera da proiektua atzeratzea hobeto aztertzeko.

3.- Epe motz edo ertainerako Plan Finantzarioaren beharra.

Iaz ere eskatu zen, besteak beste, 2016ko aurrekontuen egonkortasuna eta iraunkortasuna zalantzarik zirelako. 2018rako berdin jarraitzen da, ia 4 milioiko inbertsioak eta finantza zirkularra egin beharra (exekutatu ez diren zenbait proiektuekin zuloa estaltzea). Eta hori kezkarria denez, Plan Finantzarioa egitea guztiz beharrezkoa ikusten du EAJK.

Hori arrazoitzeko, azken 7 urteetako aurrekontuetako sarrera/gastu/inbertsioen konparaketa egin du Idoiak (2018- 2012), eta ondorioa honako hau da:

.- Sarreretan: Foru Fondoak 1,5 M€ (%25) igoera izan duelako hauspoa eman diola Udalari; baita zergak eta tasak ere -presio fiskalak-, 1,2 milioi gehiago (%22) ingesatzen direlako. Baina gastuetan: Pertsonal Gastuak 1,2 milioi euro igo dira urteko (%27); inbertsioak, berriz, urteko 1,7 milioi urteko izatetik 3,7ra (%112) igo dira; beraz 2 milioi gehiago urteko...

Ondorioz, sakon aztertu beharra edo prudentziaz jokatu beharra ikusten da gastu eta inbertsioetan.

Bestalde, datorren 2-3 urteetarako inbertsio handiak daude aurreikusita: Kiroldegirako 4,5-5 bat milioi eta beste kirol ekipamenduetarako ere bi milioi. Eta hori dena aurrera ateratzeko, batetik finantzatzeko maileguak mugatua daude eta bestetik beste inbertsio behar batzuk ere hor

OÑATIKO UDALA

daude: irisgarritasunari dagokiona, etab...

Hori dena gainera, aurrez inongo erreserbarik sortu gabe: ondare-erosketarako funtsa hutsik dago, proposatzen diren proiektuetarako Eusko Jaurlaritzaren edo Aldundiaren diru-laguntzarik ez dago -bakarrik GFAko 450.000€- baina hori 4,5-5 miloi euroko Kiroldetik obrari lotuta.

Azken urte hauetan Gobernu taldeak ez du diru-erreserbarik egin, inbertsio kopurua 2 miloi inguru urtean izan beharrea ia 4koak agindu ditu eta exekutatu ez dituen orain eskuartean Udalak duen inbertsio pilaketa.

Datuek garbi uzten dute planifikazio baten beharra dagoela eta hori eskatzen du EAJK; hau da, behar diren edo aurreikusten diren inbertsioen zerrenda bat eta ondoren gastuen proiektzio bat egitea. Eta horren arabera ikusi udal kontuen bilakaera 2018-2020 epealdirako.

Bukatzeko, mahaigaineratutako arrazoi guztiak kontuan izanik, Idoiak esan du EAJren botoa 2018ko Udal aurrekontuaren aurkakoa dela, arrazoi hauengatik:

- 1) EAJren/herritarren proposamenetatik gehiengoari ezezkoa eman zaie.
- 2) Oñatiko Udal kontuen ahalmena kontuan hartuz, 2018ko aurrekontuen inbertsio kopurua gehiegizkoa da.
- 3) Udal kontuen oreka ziurtatzen ez bada, agindutako edo espero diren inbertsioei aurre egiteko ez da nahikoa izango.

Alkateak hitza hartu du. Esan du pena handiz hartu duela EAJren ezezkoa aurtengo aurrekontuen aurrean, berak espero zuelako abstentzioa agertu zuela baina ez ezezkoa. EAJK 40 proposamen inguru aurkeztu ditu, modu arinean eta azterketa gutxirekin landuta, eta erraza izan ez den arren, denei erantzuna ematen saiatu da Gobernu-taldea. Hortik Alkatearen harridura EAJren ezezkoaren aurrean.

Oposizioa egiten dutela eta propositiboak direla adierazi ondoren aurrekontuak gobernu-taldeak modu arinean eginaren erantzun gisa agertu duela Idoiak, eta horren harira esan du: –Excusatio non petita, accusatio manifestall

Egoera ekonomikoa ona dela esan duela ez oso ona Idoiak esan duen moduan. Hala ere, berriro ere, EAJK Udalaren egoera ekonomikoari buruz alarma puntu bat sortu du: Udalak norabidea galduta duela, egoera kezagarria dela eta abar. Horrelakoak aipatu arren, alkateak argitu nahi du hori ez dela egia. Izan ere, Udal kontu-hartzaileak bere txostenean aipatu duen bezala, Oñatiko Udalaren egoera ekonomikoa ona da.

Egia esateko, 2009 eta 2010eko udal aurrekontuei begiratu gero, kontu- hartzailearen txostenetan antzekoa egoera ikus zitekeen, orduan ere aipatzen zen Plan Finantziario baten beharra eta abar. Une honetan, ordea, 6 adierazleetatik 4 positiboak eta 2 negatiboak (hori ohikoa da, hobetu beharreako izan arren). Gainera, zorpetze- maila oso txikia izanda, egoera ekonomikoa onean gaudela esan daiteke, eta egoera ekonomikoa on horrek ahalbideratuko ditu datorren urteetan (epe ertainean) egin nahi den inbertsio-plan batean sartzea.

Araotzeko ostatu-etxearen proiektuaren inguruan, Araotzeko auzo alkateak eta auzotar-talde batek landutako proiektu bat dela aipatu du Alkateak, eta hiru hankako proiektua dela: Jaurlaritza (100.000), Udala (185.000-190.000) eta auzotarrek (215.000). Proiektuak Jaurlaritzaren laguntza jasoko ez balu, garbi esanda dago -orain 15 bat egun auzoan egin zen bilera batean-proiektua ez dela gauzatuko. Auzoak lanketa serio bat egin du, eta Erein-eko laguntza programan sartzeko Udala behartuta egon da diru-partida bat udal aurrekontuetan jartzera.

Ondoren, Nerea Zubiak hartu du hitza. Adierazi du EAJtik iritsi ziren zenbat proposamenen xedea ez zela ulertzen. Adibide gisa aipatu du kultur baliabideen inbentarioa; inbentarioa, ziuzen ere, egiten delako. Kulturaren sariari dagokionez, erantzuna iazkoa izan dela. Izan ere, aitortza modu hori sari baten bidez egitea ez dute egoki ikusten eta gainera 6.000 euro saritan banatzea

OÑATIKO UDALA

Iarregi iruditzen zaie.

EAJk eskatuta, eta behar hori Bilduk ere buruan zuelako, iaz Santa Ana antzokian egokitzapen obrak egiteko diru-partida bat jarri zela, baina azkenean lanak gauzatu ez zirenez aurten partida berri bat ireki dela obra horiekin hasteko (40.000 euro).

Amaia Erostarbek argitu du proposamena EAJrena izan zela, eta eskaera horregatik 10.000 euroko partida bat jarri zela iazko aurrekontuetan. Orduko akta irakurri eta adierazi du zeintzuk ziren EAJk antzeman zituen beharrak, baina obrok ez zirela gauzatu azpimarratu du.

Nereak erantzun dio partida bat jarri zela, baina testuan jasota dagoela baita ere lehentasuna Kultur Etxeari emango zitzaiola, obra guztiak batera ezin zirelako egin. Baina, EAJk garbi utzi nahi badu meritua EAJrena izan zela, berak ez duela inolako arazorik horretarako.

Amaiak erantzun dio gauzak garbi utzi behar direla eta bakoitzari berea aitortu behar zaiola, besterik ez.

Euskarari dagokionez, Zubiak esan du gobernu-taldea ere konturatuta dagoela jatorri anitzeko ikasleen gorakada horretaz baina hezitzaileekin eta teknikariarekin hitz eginda ikusi zela ostiraletan erabiltzen zen espazio horrek bete beharko litzuzkeen helburuak ez zirela betetzen, eta modu duin batean lortu dela ikasturtea amaitzea. Gerora begira beharra balego ez litzateke inolako eragozpenik egin beharrekoa egiteko. Nolanahi ere, EAJk proposatu duen 6.000 euroko partida horren sustraia non dagoen galdetu du, hau da, kalkulu zehatz batetik ateratakoa den edo aliritzira egindakoa den.

Eskolatik kanpoko haurren aisialdian euskararen erabilera gutxitzen delako baieztapena dela-eta, esan behar da euskararen erabilerari buruz egindako kale neurketa ez dela nabaritzen; hau da, inguruan helduak ez daudenean euskararen erabilera %92,5ekoa da haurren artean, eta tartean helduak daudenean %10ean jaisten da. Zubiaren ustez, beraz, Udalak nonbait interbentzioren bat egin beharko balu helduen euskararen erabileran egin beharko luke.

Partaidetza Ordenantzari dagokionez, Nereak honako hauek aipatu ditu: Ordenantzaren helburuen eta ordenantza motaren inguruko gaia iaz ere atera zela. Kontua da horretarako alde zurretik zer nahi den definitzea, eta, ondoren, partaidetza prozesu bat abian jartzea. Bestela, guztiz kontrako efektua atera daitekeelako (partaidetzaren kortse bat) eta horretarako lehengo esperimintatzea eta hausnarketa sakona behar dela. Ordenantza hori ez dago gobernu-taldearen lehentasunen artean, baina beharra ikusten bada egin daiteke. Izan ere, EH Bilduk ordenantza bat ez baina partaidetzarako sistema bat egitea jaso zuen bere programan.

Nereak argitu du gobernu-taldeak ez duela esan memoriaren inguruan ez denik ezer egin behar. Esan duena zera izan da: horretarako ezinbestean ez dagoela Gogora Institutuaren proiektutik abiatu beharrik. Gainera garbi utzi du gobernu-taldea ados dagoela memoria, elkarbizitza eta giza eskubideen gaia lantzearekin, baina seguruenez ez EAJri gustatuko litzaiokeen moduan.

Ondoren, Borja Moiuak hartu du hitza. Adierazi du kirol arloan proposatu dituzten 7 inbertsioetatik 3 kanpoko kirol instalazioak direla eta horietatik bi atletismoari lotuta. Egia dela talde eragilean kanpoko igerilekua aipatu ere ez zela egin, oso garestia ateratzen zelako eta kontu-hartzaileak adierazi zuelako Udala ezin zela sartu horrelako aurrekontu batean.

Idoiagak galdetu du zenbat diru zen? Borjak erantzun dio 5 milioitik gora. Idoiagak adierazi du beren aurrekontua horren erdia dela, eta Borjak esan dio obrari gehitu behar zaiola lurrak erostea eta gero sortuko den langileen bikoizketa.

Urrutxuko atletismo pistaren inguruan, adierazi du atletismo pistaz gain patinaje eta ziklismo erabileren kontuak atera zirela talde eragilean. Halaber, Urrutxu ez da bakarrik goiko aldea,

OÑATIKO UDALA

behekoa ere Urrutxu da, eta proiektu hori osotasunean hartu beharra dago. Horrek behe aldeko deskontaminazioa egin beharraz gain, erreka desbideratzea eta lur-trukaketak egitea dakarrela; beste diru pila bat, beraz.

San Martineko hariztian korrika egiteko bidexka bat egiteari buruz, zera azaldu du: mendia aparte utzita, une honetan herrian korrika egiteko dagoen lurrezko gune bakarra bertan kokatzen dela. Bestalde, Natur zaleak elkartearekin hitz egin ondoren, adituen erantzuna izan zen San Martinen zerbait egin behar bada parkea bere osotasunean kontuan hartu beharko duen proiektu bat izan beharko lukeela.

Kiroldegian helduentzako gimnasia makina egokituak jartzeko eskaerari dagokionez, esan du makina egokituak jada jarrita daudela Kiroldegian eta erabiltzeko modukoak direla bere ustetan. Gainera, gimnasioa txiki geratu den garai hauetan, makina berriak sartzeko handitzea gauzatu beharko litzateke. Eta horrez gain adierazi du, posta etxearen aurrealdeko lorategian daudenaz aparte, Eltzian ere jarri direla kanpoko makina egokituak.

Kirol teknikari berriaren kontratazioa abian dagoela, eta lanaldiaren erdia Eskola Kirola proiektua indartzera eta sustatzera bideratuko da. Beste erdia kirol teknikariaren errefortzulanetarako erabakiko da. Gai honetaz Batzordean asko hitz egin da, eta hori da Bilduren proposamena. Hori dela eta, zera galdetu du, ea abian dagoen kontratazioaz gain EAJK beste kirol teknikari plaza bat eskatzen duen.

Idoiagak erantzun dio EAJren eskaera garbia dela eta horrela adierazi dela Kirol Batzordeetan. Borjak erantzun dio gaiari buelta dezente eman zaizkiola eta berak oraindik ez duela garbi EAJK zer eskatzen duen.

EAJren beste eskaera bat izan da kirol programa ezberdinak uztartzea. Borjak dio horretan ari direla, Gizarte Zerbitziburua eta Kirol Teknikaria zein Mankomunitate bidez Arrasateko ospitalearekin dauden hartu-emanetan.

Igerilekuari 2-3 kale gehituko zaizkio, eta hori egingo den eraberritze-proiektuan jasoko dela argitu du Borjak. Bestalde, kiroldegiaren eraberritzearen inguruan errotondan bueltak ematen ari zeari buruz, zera adierazi du: buelta bakoitzean talde- eragileari jendea gehitu egin zaiola eta alde horretatik parte-hartzaileen pluralitate horrengatik azkenean gauzatuko den proiektuarekin guztiz lasai dagoela.

Abiadura moteleko plan batean gaudela eta gauzak argazki batean ateratzeko egiten ditugula bezalako aipamenak ez direla horrela argitu du Ana Martin andreak. Izan ere, Udala programa serio bat garatzen ari da enpleguaren sustapenerako, eta programa horretatik sortuko direla gauzatuko diren proiektu berriak. Cowork-ari buruz esan du herritarren eskaera bat izan zela eta Bilduren herri programan jasotakoa, eta orain hori garatzen ari direla.

Turismoaren jarraipen datuak ez direla onak egia dela adierazi du Martin andreak, baina datu horiek hobetzeko langileei formazioa eskaintzen ari direla. Donostiak, adibidez, blogaren jarraipena 2tik gorakoa izateko erronka du, eta une honetan 1,65 da. Oñatin, aldiz 2,04koa da. Beraz, jarraipena ona ez izan arren, jendeak erantzuten duela esan du.

Kepa Zelaiak esan du Gazte Planaren inguruan asmoa dela orain artekoaren balorazio bat egitea, eta gero ikusiko dela zer egin ikastaro eta Udalekuekin. Iaz ere eskatu zutela EAJK eta saiatu zirela Hondarribiarekin egiten, baina ez zela atera. Nolanahi ere, garbi utzi du horretara irekita daudela.

Irati Etxeberria andreak bere aldetik bi puntualizazio egin ditu, Olakuako irisgarritasuna iragazgaitzeko proiektua aprobeztatuz zati baten gauzatu direla, bigarren faseari heltzerakoan, zatiren zaharrena, gehien erabiltzen zena...nondik hasi garbi ez zutelako aurten Olapoto-Olakua plana osoa egitea erabaki dutela eta bide batez argiteria berritzea. Bestalde, ITE-ak egiteko

laguntzei buruz finantza bikoizketa sortzen delako eta eraginkortasunagatik ez dela onartu, batetik, kontuan hartuta Jaurilaritzaren laguntzak %45era iristen direla eta bestetik, datorren urtean Oñatin 533 etxek pasa beharko dutela ITEa (Errekalden 20 etxek eta Olakuan 22k, hau da, 1000- 2000 etxebizitza inguru) Udalak eman dakien laguntzak txikiak izan zirelako, proposatu dela alternatiba hori, hau da, jakinda alde zaharrean zenbait etxe hutsik daudela alokatzeko gutxienezko baldintzak betetzen ez dituztelako, horri aurre egiteko zati batean behintzat eta proiektu pilotu gisa laguntza hori onartzea proposatu dela, laguntzak ematea etxeak birgaitzeko eta ondoren laguntza-maillegu hori amortizatzeke Udalak berak alokairu-sozialean ematea aurreikusi dela, horretarako propio egingo den laguntza-oinarri batean oinarrituta.

Idoiagak hitza hartu ondoren esan du, lanketa arina esan duenean, iaz esan zuen gauza bera errepikatzen ari dela, gainera EAJ-ren proposamenak arinak izan direla esateak errespetu falta bat iruditzen zaiola, besteak beste, Ogasuna batzordean EAJ-k bere proposamenak aurkeztu zituenean garbi adierazi ziolako Alkateari zerbait ulertzen ez bazen galdetu besterik ez zuela. Hemen aztertu beharko zena dira aurkeztu diren inizatibak, edo EAJ-renak arintzat kalifikatzen dituztenean, EAJ-k zer esan beharko luke Bilduk iazkoen jarraipena egiten ari dela aipatzen duenean?

–Excusatio non petita, accusatio manifestallren aipamenari buruz esan du berak bakarrik argitu duela zein den oposizioaren lana besteak beste, bakoitzak bere ardurak hartzeko eta alde horretatik ez dela zilegi, oposizioak egindako proposamenak Gobernu taldeak bereak izango balira jaso eta Kontzejupetik-en argitaratzea, honekin jarraitu du Nerea Zubiak Kontzejupetik egindako azalpen bati buruz ari dela, non esaten duen gerrira eta aurpegia behar dela EAJ-k bere zakuan sartzeko beraien ez den ideia bat beraiena dela esaterakoan. Ondorioz, Alkateak esan nahi izan duen moduan ez da aitzakia bat izan baizik eta gauzak bere tokian jarri eta argitzea besterik ez.

Udalaren egoera ekonomikoari buruz Alkateak 2009 eta 2010 urteak aipatu ditu baina ez du esan, bi urte horietan Udala behartuta egon zela foru fondora dirutza bat itzultzera, 2009an 1,5 milioi eta horri aurre egiteko, bat inbertsioak 4 milioitik 2,5 milioira jaitsi ziren eta austeritate plana egin zela, azken bi legegaldietan zorionez EH Bilduri egokitu ez zaiona. Egia da zorpetze-maila altuak izan direla Udaletxean baina pixkana-pixkanako zorpetze-maila ere jaisten saiatu eta lortu zela.

Arautzeko proiektua modu onean planteatu da, garbi geratu zitzaigun laguntzarik ez bazegoen proiektua ez zela gauzatuko baina EAJ haratago doa, hau da, proiektuaren bideragarritasunari buruzko datu bakar bat ere ez dago eta hori da EAJ-k salatzen duena.

Partaidetzaren Ordenantza bat izateak ez du mugatzen espontaneitatea, helburua delako arlo guztien parte-hartzea bermatzea, 2009-2010ean Siadeco enpresa kontratu ondoren, Aldundiaren laguntza bat tarteko egin zen moduan eta hortik atera zen bizikleta plana.

Borja Moia saltzaile ona dela garbi utzi du Idoiagak baina berak esan ez dituenak ez esateko eskatu dio, kirol instalazioak kanpokoak izan behar direnik EAJ-k ez du esan, eskaera bi modutakoak egitearen aldekoa izan denean.

Kirol teknikariarena, EAJ eskatzen ari dena Kirol Batzordean sarritan esan dela, Eskolaz kanpoko kiroletarako teknikari bat lanaldi osoz, eta horretaz gain Kirol Teknikariari laguntzeko beste norbait behar bada, aztertu eta dagokion erabakia hartzea, ondorioz Idoiagak dio EAJ-ren kontratazio honen inguruko jarrera hori izan dela 2015etik.

Urrutxuri buruz eta argitze aldera Idoiagak esan du, Urrutxuk bi alde dituela goikoa eta behekoa (aldapatsua), goikoaren deskontaminazioa 4 milioi ingurukoa izan zela eta lan hori Aldundiaren laguntza bati esker egin zela, behekoa beste 2-3 milioiko aurrekontua duela, eta proiektu honekin hasi aurretik eta dena egitea diru asko zelako, IHOBE-ri galdetu zitzaioala goiko aldea eginez gero, Udalak baimena lortuko zuen ala ez, egin ostean goiko aldea kirol erabileretara zuzentzeko eta erantzuna baiezkoa izan zela. Ondorioz, une honetan goikoa deskontaminatuta dago,

OÑATIKO UDALA

egia dela, barruan sortzen den gasa kaleratzeko tximinia moduko batzuk jarrita daudela baina hori deskontaminazio prozesu normalean batean egiten den zerbait dela, baina jarraipena egin behar zela 2011tik egin ez dena, beraz hori egin ondoren IHOBEn baimena lortzeko ez legokeela egon behar inolako arazorik.

EAJ-k proposatzen duen San Martin-eko atletismorako bidexkak ez du eraginik izango San Martineko hariztian, egia dela Natur zaleak horren aurka agertu zirela baina garbi dagoela ere, aurre-iritzi batzuekin joan zirela bilerara, gauza bera gertatu zen Hirigintza batzorde batean Segurola-ri berak galdetu zioenean ia nola ikusten zuen San Martin hariztian atletismo pista bat egitea, Idoiagak inolako zehapenik eman gabe guztiz aurka jarri zitzaielako, baina argitu ondoren egin nahi zutena (Gasteizko Prado izeneko tokian egin dena) iritziz guztiz aldatu zela, garbi utziz hondeamakina eta –todo unoll bota gabe atletismo pista bat egin nahi bazen horretarako ez zegoelako inolako arazorik.

Igerilekuari itzuliz, EAJ-k ez du esan Kiroldegia handituko denik igerilekua handitu gabe, esan dena da, 2018an azkenean proiektua egingo dela eta 2019an lanekin hasiko dela.

Olakuako irisgarritasun proiektua eskatzea ondo dago, EAJ-k eskatu duen bakarra dela Olapotokoa egitea.

ITEak egiteko diru-laguntzei buruz, bikoizketa ezin dela izan justifikazioa proposamena atzera botatzeko, besteak beste, kasu askotan ematen direlako duplizitate kasuak diru-laguntzetan, gainera EAJ-k proposatutako diru-kopurua da egin beharrekoa zatika egiteko eta betik, alde zurratik oinarri batzuei mugatuta hau da, diru-laguntzak jasotzeko bete beharko ziren baldintzak alde zurratik zehaztuta.

Jon Kepa Gerrikagoitiak esan du, Donostia eta Oñati ezin direla konparatu turismo alorreko batz besteko okupazioan, Euskadin hiriburuak 2tik gorakoa lortzea saila delako baina aldiz nekazaritza guneetan 4tik gorakoak ere daudelako. EAJ-ren eskaera izanda hori jakiteko estudio bat egin beharko litzatekeela eta hortik hobetu daitezkeen alderdiak hobetu.

Amaia Erostarbek bere aldetik 3 puntu argitu ditu:

.- Kultur guneen inbentarioa eskatu dutenean eskatu dutela jakiteko zeintzuk diren dauden guneak eta beharren arabera, gune bakoitza modu egoki batean eskaerara egokitze, eta proposamena izan dela txosten bat egitea.

.- Kultur sariarena penaz hartu dutela bigarren aldiz Bilduren ezezkoa, beste sari batzuk Udalak ematen ditutenean kasu honetan konpetentzia arazoak sortuko direla esateak ez duelako justifikatzen aitortza hori ez eskaini izatea merezi dutenei.

.- Jatorri anitzeko euskararen errefortzua iraileko batzordean aztertu zela, hau da, lehen hezkuntzako 4. mailakoei zuzentzen zaiena eta bilerako aktan dio, Gaztelekuan astelehenetan eskaintzen den euskara errefortzu pertsonalizatu zerbitzua desagertuko dela eta ostiral arratsaldeetan integrazioarako eskaintzen 2 orduko saioa baita ere. Ondorioz jakinda zerbitzu horri aurre egiteko Udalak baduela beste baliabide eskaera izan dela 59 haur eta nerabe horiei zerbitzu hori eskaintzea eta Bilduren erantzuna izan da 60tik gora badira pentsatuko dela zer egin. Oñati baterako 59 asko dira eta euskara jakinez gero erabiltzen da, bestela noski ezingo dela erabili. Ondorioz, EAJ- rentzat zerbitzua mantentzearen aldeko apustua egin beharko lukeelako Udalak.

Bestalde, jolas-guneetan euskararen erabileraren inguruan gertatzen ari zena 2015eko udazkenean komentatu ziola Udal teknikariari eta gauza hauek erraz zabaltzen direlako ohitura horiek lehenbailehen moztea da egokiena hori da gauza bat eta bestea da Oñatin kale neurketan izan duen emaitza ona eta hori poztekoa den arren, ohitura txarrei ere konponbidea aurkitu behar zaiela emaitzak hobetzen joateko.

OÑATIKO UDALA

Oñatiko herrian ere memoriaren, elkarbizitzaren eta giza eskubideen aldeko lanketa-plana sortzeari buruzko eskaera izan dela Oñatin ere arlo honetan badagoelako zer konpondu, familietan gorrotoa dagoelako eta aukera ona izan daitekeelako Gogora Institutuak ematen duen bidea, hori erabiltzeko proposamena egin dela.

Alkateak sarritan hanka sartzen dutela argitu du, baina adjektibo ez egokiak bi aldeetatik erabiltzen edo erabili direla.

Gaia aztertu ondoren eta Ogasuna Batzordearen irizpena aldekoa dela kontuan hartuz, Udal Plenoak gehiengoz 2018ko Udal aurrekontuak onartzea erabaki du, botazioaren emaitzak, alde 9 boto (EH Bildu) eta aurka 6 boto (EAJ).